

SALBATORE MITXELENA IKASTOLAKO

OSASUN PROTOKOLOA



2017-2018 IKASTURTEA



Oinarria: EUSKO JAURLARITZAREN PROZEDURA

1. Haurrak arazo sanitarioen bat duela jakinda, **aitak/amak/tutoreak** ikastetxearen ardura duen **zuzendaritzari** jakinaraziko dio(te), **osasan ziurtagiria** aurkeztuz. Ziurtagiriak honako hauek jasoko ditu: osasun-arazoa eta eskola-orduetan eman behar zaion arreta, beren-beregi adieraziz arretaren modalitateak: jarduerak eta medikaziorik behar izanez gero, dosiak.

2. Zuzendariak, **langile “prestatuei”** emango die arazoaren berri. Langile horiek bere esku izango dute haurrarekiko esku-hartzean laguntzea ala ez, haurrari arreta ematen dion osasun-profesionalak adierazitako jarraibideen arabera.

3. Horretarako, Gurasoek **idatzizko baimena** emango diote bere burua laguntzeko eskaintzen duenari eta lan hori betetzeak ekar dezakeen edozein ardura kentzen.

4. Ikastetxeko zuzendaritzak ezin badio egoerari irtenbiderik eman bere baliabideekin, ikastolari dagokion **Osasun Eskualdeko zuzendariarengana** joko du, eta horrek erabakiko du neurri operatibo egoki/beharrezkoa, kasu horretan osasun-laguntza emate aldera.



IKASTOLAREN PROZEDURA OSASUN KONTUETAN

Tutoreek argi eduki behar dute txosten bereziak nortzuk dituzten eta ikasle hauei zerbait gertatuz gero zer egin behar den. Espezialistek ere beraien ikasleen osasun arazoak berri izan behar dute.

Irakasle berri edo ordezkoei etapako koordinatzaileak protokoloaren berri emango die.

Txostenak honako toki hauetan egongo dira:

-Baimenen zerrendak (botikak emateko, anbulatoriora eramateko eta DBHkoei etxera joaten uzteko) botikin nagusian, jangelan eta etapa bakoitzeko botikinetan egongo dira. Tutore bakoitzak bere gelakoa izango du.

-Osasun fitxa pertsonalak eta osasun arazo kronikodun ikasleen erregistroak, dagokion tutoreak izango ditu eta beste aleak giltzapean egongo dira botikin nagusian eta jangelan.

Ikasleen botikak hozkailu batean zentralizatuko dira. Beheko irakasle gelan komuneko ate ondoan dagoen hozkailuan gurutze gorri batekin identifikatuta.

Web orrian eta ikasturte hasierako buletinean urteko Osasun Protokoloaren inguruko informazioa emango zaie gurasoei.

Osasun arazoak dituzten ikasleekin:

Urtero, kurtso hasierako gurasoen bilera orokorrean eman behar da ondoren datorrenaren berri:

Ikasle batek osasun arazo bat duenean, guraso edo arduradunek tutorea jakinaren gainean jarri behar dute medikuaren txosten baten bidez eta datu hauek eman fitxa bat betez:

- Gaixotasuna eta bere eragileak.
- Sintomak.
- Tratamendua.



Tutoreak etapako koordinatzailea eta osasun arduradunak jakinaren gainean jarriko ditu eta hauek informazioa dagokion tokian jarriko dute.

Printzipioz, ikasle batek eguneroko tratamendua behar izanez gero, ahal bada botika etxean emateko moduan antola dezala ordutegia gomendatuko zaio familiari.

Eskolan medikazioen bat eman behar izanez gero, tutoreak familiaren baimen sinatua izatea ezinbestekoa da **EDOZEIN KASUTAN**.

Errezeta derrigorrezkoa denean (antibiotikoak...): gurasoen baimenaz gain, ordutegia, maiztasuna, dosia eta tratamenduaren iraupena gurasoek adierazi behar diote tutoreari. Era berean, medikazioa ere beraiek ekarri behar dute Ikastolara.

Errezetarik gabekoetan (Ibuprofenoa eta paracetamola) gurasoen idatzizko baimena dutenei soilik eman diezaiekegu, beti ere gurasoek telefonoz baieztatu ondoren.

DBH: Ikasleren bat ondoezagatik etxera bidali behar badugu, aurrez gurasoen baimena sinaturik eduki eta unean telefono dei baten bidez beraien oniritzia jasotzea ezinbestekoa da.



EGOERA LARRI BATEN AURREAN ZER EGIN:

- HAURRA EZ UTZI INOIZ BAKARRIK.
- Ikaslea idazkaritzako botikineran eraman. Ezin bada bertara eraman, lekuan bertan artatu, inguruko ikasleak urrunarazi eta laguntza eskatu. Ikaslearen tutoreari jakinarazi.
 - Baimenak begiratu ezer egin aurretik.
 - Zalantzak izanez gero, arduradun(ar)ekin hitz egin (etapako koordinatzaileak edo Gorputz Hezkuntzako irakasleak).
 - Ikaslearen egoera baloratu eta gurasoei deitu ondoren eta beharrezkoa bada, anbulatoriora eraman edo 112ra deitu. Anbulatoriora eramateko baimena Ikastolak bakarrik du eta ez beste inork.
 - Gurasoak bila etortzen direnean seguruaren berri eman eta aukera ezberdinak azaldu: - Osakidetzara joan daitezke.
 - Qiron edo poliklinikara joan daitezke. (aukera hau eginez gero istripu fitxa beteta eraman beharko dute eta gurasoei “AXA guraso gida” dokumentua helaraziko zaie)
 - Edozein istripu edo gertakariren aurrean ez utzi ikasleari lo hartzen!!

Gure kotxean ikasle bat anbulatoriora eraman al dezakegu?

Gurasoen idatzizko baimena dutenak bakarrik eraman ditzakegu. Gurasoei deitu ondoren adostu ea gurasoak etorriko diren Ikastolara edo anbulatorioan elkartuko garen.

Ikaslea txikia bada (12 urtetik beherakoa, edo 135 cm baino baxuagoa) autoan garraiatzeko idazkaritzako botikinean dagoen aulkitxoa hartu behar da, kotxearen atzeko aldean jarri eta ikasleari beti segurtasun uhala jarri.

Idatzizko baimenik gabekoak ezin dira kotxean eraman, nahiz eta telefonoz baiezkoa esan.

**MEDIKAZIOA EMATEKO BAIMENA**

Aita/ ama / tutoreen baimenarekin ikasleei medikazioa eman behar zaienean eskolaren lana erraztuko du baimen honek

IKASLEAREN IZEN-DEITURAK		ARGAZKIA
JAIOTEGUNA		
ZIKLOA ETA MAILA		
AMA / AITA / TUTOREA		
HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA:		

Nik

Ikasle honen amak/aitak/legezko tutoreak

.....

1.- Umearen osasunarekin zerikusia duten gorabeherak adierazi nahiko nituzke (X bat jarri dagokionean)

Diabetea	EZ	BAI
Arnasestua	EZ	BAI
Epilepsia	EZ	BAI
Sendagaiekiko alergia (zein diren adierazi)	EZ	BAI
Elikagaiekiko alergia (zein diren adierazi)	EZ	BAI
Bestelakoak (adierazi)	EZ	BAI

Gaixotasun horietako bat izanez gero ikaslearen pediarraren edota familiako medikuaren txostena aurkeztea gomendatzen da, eskola-orduetan gaixotasunaren krisiren bat gertatuz gero zein arauri jarraitu behar zaion adieraziko duena. Baita gaixotasun kronikoa izan eta eskola orduan botika hartu behar badu ere.

2- ikastetxeari baimena ematen diot

- **Orokorrean:** Baimena ematen dut puntualki eta beharrezkoa denean (sukar, min arina eta horrelako kasuetan) sendagai hauek emateko:

Paracetamol	EZ	BAI
Ibuprofeno edo antzekoa	EZ	BAI

- **Gaixotasuna kronikoa bada edo lehenengo puntuko egoeran balego:** Baimena ematen dut medikuaren txostenean adierazitako sendagaiak emateko, betiere adieraziz sendagaia egoera onean dagoela eta tratamenduari segida emateko adinako dosia badagoela. Sendagaia eta bere kasuan materiala dakarkit eta behar bezala etiketatuta aurkezten dut (ikaslearen izena, data eta hartzeko ordua adieraziz).

3.- Ikastetxea eta sendagai-emailea erantzukizunetik salbuesten ditut, goian adierazitako araei jarraituz jokatzeko badute.

Aitaren / amaren / tutorearen sinadura

.....(e)n, **2017**ko.....aren(e)an

*Zigor Kodearen 195. artikularen arabera, jende guztiak babesgabei eta arrisku nabarmen eta larritan daudenei lagundu behar die eta eginbehar hori ez betetzea delitu da, baldin eta norberaren burua eta besterena arriskutan jarri gabe egiterik badago. Era berean, Zigor Kodearen 20. artikularen arabera, erantzukizun kriminaletik salbu daude eginbeharren bat betetzen ari direnak.

* Behean sinatzen duenak adierazten du emandako datuak egiazko eta zuzenak direla eta konpromisoa hartzen du gerta daitezkeen aldaketan berri emateko. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera bermatuta dago emandako datuen segurtasun eta konfidentziaztasuna bai eta datu horiek agiri honetan adierazten diren helburuak betetzeko soilik erabiliko direla ere.



SALBATORE MITXELENA IKASTOLA
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 14
20800 ZARAUTZ



ESKOLA ORDUTEGI BARRUAN OSASUN ARRETA JASO AHAL IZATEKO BAIMENA

IKASLEAREN IZEN-DEITURAK _____

- ANBULATORIORA KOTXEZ ERAMATEKO BAIMENA KASU ARINETAN

BAI

EZ

- ONDOEZAGATIK IKASLEA ETXERA BIDALTZEKO BAIMENA, ALDEZ
AURRETIK GURASOAK TELEFONOZ JAKINAREN GAINEAN JARRIZ.

BAI

EZ

Guraso/arduradunen sinadura :